

EUSKELDUNEN ZIÑEZKINTZAK

BETI izan dira euskeldunak ziñezki sendo, bero, zuzenekoak. Erljio egiya, bakar bakarra, ezagutu zutenian, eta gogo beroz berentzat artu zutenian, geyago ez uzteko izan zan.

Erliak bezela ondotik ibilliko ziran batzuek, gezurrezko marmari-zuak zabaldu nairik, bañan alperrik: euskeldunak bein egiya ezagutu ezkeru ez du beñere gezurra gatik chandatu izan nai.

Egi zalia bai da euskelduna jator jatorretik.

Euskeldunentzat kristaba besterik ezin izan liteke.

Kristaba ez dana abere izan bear da.

Ala adierazten du bere izkeran: «au ez da kristaba,» emen dubenian euskeldun batek, «aberea da» esan nai luke.

Ez da ordia beti euskelduna kristaba izan. Kristautasuna ere ez da betikoa. Jesu Kristo gure Jauna ludira etorri bitartian kristautasunik etzan.

¿Zer ziran bada aurreroko euskeldunak, kristautasuna ezagutu baño lenagoko gure asabak?

Jesu Kristo ludi ontara etorri baño len, euskeldunak bazirala ondo dakigu, eta alde alde orain arkitzen geran leku berian.

¿Zer ziñezkintza, zuten bada euskeldun zar ayek?

Gauza garbirik ezin esan leike gai ontan; iritzia besterik ezin azaldu genezake.

Egia ezagutu bitartian gezurra irukiko zuten noski egitzat. Beste errietan ori gertatu da beintzat eta gurian ere gauza berdiña gertatuko zan.

Gezuraren oñetan jarriko zuten beaz beren naitasuna, ta gezurrezko urtziai egiazko Jaungoikoari dagokion omena emango zioten.

¿Beren gezurrezko urtzea eguzkia ote zan? ¿Ote zan illargia? ¿Izar-rak ote ziran?

Alako zerbait izan bear zubela zerbait ichura bada. Ala adierazten digitela dirudi ilbeteen egiten ziran jayak eta baita ere asteko egunen izenak ere.

Bañan len esan degun bezela gauza garbirik ez degu, gai ontan iritziak besterik ezin azaldu genezazkike. Berri jakiñik ezerchore ez.

Kristautasuna baño len, euskeldunak zerbait erlijio izan biar zutela, gezurrezko urtzeak izango zituztela eta abek eguzkia, illargia edo izarak izan bearko zutela. Orra guztiya.

¿Zer egipen eskeintzen ote zituzten beren gezurrezko erlijio aietan?

Ikusi dezagun euskel itz zarretatik zerbait irrika nabaitzen ote degun, egipen oyen berri mutur bat achitzeko.

Euskerak bi itz zarrak badauzka zerbait argi onenian eman lezaigutekenak.

Itz abek, *zorgin* eta *azti* dira.

Bi itzak berdinchu erabilten dira; baña, geyenian, *zorgiña* aztiya baño gaiztoagokotzat artzen da.

Baña dana dala, bi itz oyek itz zarrak dirala badakigu; beaz lengo garai zarretan aztiak eta *zorgiñak* baziran.

Etziran nozki gaurko egunian esan oi dan bezelakoak izango; orain azti ta *zorgiñak*, uztez daukazkigu orain bost edo sei eunkida ziran bezelakotzat.

¿Baña lenagokuak? ¿Kristautasuna baño lenagokuak? ¿Urtze gezurrezkoak zeukazkiten garaikoak, zer ote ziran?

Itzak zerbait argi bide emango baliguteke. Zaya gaitian.

¿Zer esan nai du *zorgin'ek*? *Zorgin* erabakiko degu bitan: *zori + gin*, eta ara zer gertatzen zaigun: *zori*, adurra da, erdal izkeran *suertia* esango gendukena; eta *zorigin* edo *zorgin*, zoria, adurra, etorkizuna, *suertia* asmatzen dubena.

Lengo *zorgin* zarrak beaz etorkizun asmatzalliak izan bear zuten, eta erlijio gezurrezkoan gezurrezko asmatzalleak ez dirudi ain gauza okerra. Gezurra gezurrearekin an nunbait da.

Orain ere izaten dira atso batzuek etorkizuna asmatzeko aitzekiya-rekin, zenbait neska gajori chanponak churrupatzen dizkatenak, esanaz senargai ederra, bikaña ta aberatza arkituko dutela ta orrelako beste lerdenkeri batzuek.

Oyei ere *zorgiñak* deitzen diote oraindik leku batzuetan, besteetan aztiak.

Geyenian, *zorgin* izena daramate, ipuietan esaten diran alako erratz

gañian gabetan aidian ibiltzen diran atso ikaragarriak, «ez gerala ta bagerala» oju egiñik eta abar.

Bañan ipuietako zorgin oyek, orain bost edo sei eunkidatik onuntzakoak dira; aurreroakoak, lenengo garaikoak etorkizuna asmatzalleak izan bear zuten.

Itza bera daukagu erakusten.

Beste len aitatu degun itza *azti* da. Azti, aztu, aztri berdiñak dira, asmaketa egin zalea, asmagiña, esan nai dute. Orra beaz nola azti ta zorgin, gauza berdin samarra esan nai duten itzak diran.

Bañan azti itz onetan asierako izkinak zerbait adierazi nai digula igarritzen da beriala.

Asierako *az* orrek *aiz* izan bear du, edo obetuago oraindik *aiz* edo *arri*. Eta aizkoran, aitzurran eta abar ikusi genduen bezela adierazten digu, lengo garaietako azti zarrak beren somaketak asmatzeko zerbait arrizko tresna ibilli biar zituztela.

Emendik zerbait argitasun badatorrigula dirudi guk nai genduen gayan.

Erlijio gezurrezkoaren ichumenean euskeldun zarrak arkitzen ziran garayetan, baziran emakume batzuek *aztiak* izendatzen ziranak, eta abek zerbait arrizko tresnen bitartez etorkizuna asmatzen zuten.

Emakume oyek izango ziran nozki erlijio gezurrezkoari zegokion apaiz-emeak, eta abek beren arrizko tresnakin egiten zituzten imintziuak, urtze gezurrezkoai eskeñitzen zizkaten omen eta egipenak.

Gañera zerbait dantza ere egingo zuten noski. Euskelduna dantzariya da jatorrez eta emakumeak iñor baño zaliagoak izan oi dira.

Euskeldunak abestu baño geyago dantzatu egin izan du. Gure irizian euskeldunak abestu dubenian dantzatzeko abestu du. Dantzetan gorde ditu bere oroimen bikañenak, guda ikaragarriak dantzetan gogoratu izan ditu. Ez da jairik dantzik gabekoik. Eleizan bertan ere dantzatzen da euskelduna.

Ala bada uste degu dantzik gabe etzituztela utziko erlijio gezurrezkoan egiten zituzten billaldiak. Azti ta zorgiñak dantza zerbait egin biarko zuten.

Bai noski.

L. M. AITZBITARTE